

## Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetatik iritsita, gure artean da dagoeneko Lansari Iahdih Brahim

- **Basamortuko baldintza gogorretatik aldendu eta udako egonaldia Andoainen egin ahal izango du Lansarik, azken urteetan artatu duen familia berebean**
- **Urte asko dira Udalak ‘Oporrak Bakean’ programan parte hartzen duela, baina ezinezkoa litzateke guztia haurrak artatzeko prest azaltzen diren familiarik edo Hurria-Sahara elkar-tearen lanik gabe**

**Andoainen, 24-07-08.-** Ez du lehen aldia gure artean, baina lehen aldiko grin eta poz berbera sumatzen zaio Lansari Iahdih Brahim-i. Ez du irribarrea ahotik kendu Andoaingo udaletxeko udalbatza aretoan egon den denboran: Andoni Alvarez alkateak, Haizea Barandiaran Gizarte zerbitzuetako zinegotziak, oposiziko talde politikoetako ordezkariak, Gizarte zerbitzuetako teknikariak, eta Hurria-Sahara taldeko ordezkariak ongi-etorria eman diote, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetatik iritsi berria.

Tichla deituriko *daira-tik* (herrixkatik) dator Lansari, Auserd deituriko *wilaya*-n (probintzian) kokatuta dagoena. Ekainaren 30ean heldu zen Andoainera, hirugarrenez: iaz eta duela bi urte ere gure herrian egin zuen udako egonaldia. Orduko familia berean egin diote harrera oraingoan ere: Yune Moreta, Cruz Tedone eta haien 5 urteko semearekin biziko da abuztuaren amaierara arte. Lansarik, hain juxtu, 10 urte beteko ditu abuztuaren lehen egunean.

Lansari ‘Oporrak Bakean’ programari esker bertaratu ahal izan da Andoainera. Haurrak, egun batzuetan behintzat, basamortuko baldintza gogorretatik aldentzea ahalbidetzen du programa honek, euren osasuna eta elikadura hobetzea, eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematen zaie, besteak beste.

Urte asko dira Andoaingo Udala programa honen parte dela; edonola ere, ezinezkoa litzateke haur hauek artatzeko prest azaltzen diren familiarik gabe, eta Hurria-Sahara elkar-teak egiten duen lan eskergarik gabe. Alkateak eskerrak eman nahi dizkie programa hau bideratzeko egiten duten lan eta esfortzuagatik.